

{ datorrena } Iñaki SOTO

Kultur gertakariak eraikitzeko materiala

Eider Rodriguezen "Eraikuntzarako materiala" ren gaztelaniazko itzulpenaren lehen edizioa astebetean agortu da. Nire ikuspuntutik, nobela hori kultur gertaera bat izatera deitua zegoen. Orain arte, ez da izan. Gurea ez bezalako kultur sistema ez-minorizatu batean edo dimentsio handiagoko sistema batean, lan hori beste era batean igaroko zen; indartsuago, agian.

Jakina, Rodriguez emakumea dela ezin da ekuaziotik atera. Feminismoaren aurrerapenak gorabehera, sistema honetan emakume bat nekez izan daiteke gertakari kultural baten protagonista gorena. Jende askok ez du irakurtzen, eta oraindik ere badago emakume idazlerik irakurtzen ez duen jende asko. Arrakala eremu guztietan dago, salbuespenik gabe.

Nolanahi ere, ez dirudi "Eraikuntzarako materiala" kasu isolatua denik. Aita Santuak "Hermanito" gomendatu behar izan zuen fedegabe askok Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen bitxia irakur genezan. Jon Benitoren "Lagun minak" zain dago. Ez da literaturarekin bakarrik gertatzen. Nola bideratu jendea "Anonyme Popular" ikustera? "Kantu bat gara"-k lortu du, baina Jon Maiak abesten dion beste komunitate horri mezua heldu zaion ez dakit. Aldi berean, gure ekoizpen musikala neurrigabea da. Atzo estreinatu zen "Irati" edo "Black Is Beltza II: Ainhua" bezalako ekoizpen zinematografikoen meritua itzela da. Gastronomian, Arrea!-ri edo Amari kanpoan egindako aitorpenek bultzada handia eman diete, eta ez da lehenago jatetxe horien bertuteak nabarmendu ez ditugulako hemen.

Ez dut uste kultura nagusiaren onarpenarekin bakarrik zerikusia duenik. Literaturan, euskarazko 'supersalmentez' ari gara. "Miñan"ek, hezkuntza sistemaren bultzada alde batera utzita, ezin ditu askoz liburu gehiago saldu. Berdin "Eraikuntzarako materiala"rekin. Gure mugak ez dira soilik politikoak eta kulturalak, fisikoak eta

demografikoak ere badira. Botere desoreka eta mende-kotasunarekin lotutako arazoak baztertu gabe –auzi nazionala, hizkuntzarena, generoarena...–, gure diagnostikoan eskalaren auzia sartu behar dugula uste dut.

Esan bezala, beste auziak baztertu gabe. Izan ere, elkarriketaren batean, Rodriguezen eleberria espainiar emakumeen narratibaren barruan kokatzeko grina ikusten da kazetarien aldetik, Espainiako belaunaldi baten isla gisa. Sara Mesa edo Lara Moreno aipatzen dira, eta ez Karmele Jaio edo Katixa Agirre. Txani Rodriguez edo Edurne Portela ere hor leudeke, adibidez, irizpidea hizkuntza balitz. Nire kezka aitortzen dut: gu gertakari

Gu gertakari kulturalak sortzeko kapaz ez bagara, beste batzuek sortuko dituzte, gure materialekin. Eta zilegiak izango dira, baina gure kulturaren eta herriaren intereseekin zerikusirik ez dute izango

kulturalak sortzeko kapaz ez bagara, beste batzuek sortuko dituzte. Eta zilegiak izango dira, baina gure kulturaren eta herriaren intereseekin zerikusirik ez dute izango.

Ohiko erantzun sinplistan, irtenbidea gaztelania era-biltzea da. Ez da nire ikuspuntua. Adibidez, une batez "Eraikuntzarako materiala" ez zela itzuliko pentsatu nuen, eta ez zitzaidan gaizki iruditzen –itzulpena egitea ondo iruditzen zaidan bezalaxe–. Beste ohiko erantzun sinplistan, irtenbidea gaztelania eta frantsesa ez erabiltzea da. Ez dut idealismoan sinesten, «balitz bezalako...» eskema horietan. Gure eginkizunetako bat, hain zuzen, gertakari izaera merezi duten sorkuntza lan horiek bultzatzea da. Lortzen dugunean, asmatu dugu; ez dugunean lortzen, zergatik jakin behar dugu. Hau guztia, kultur gertaerak ezin direla diseinatu jakinda, ezta eraikuntzako materialik onena duzunean ere. •